



**DONOSTIAKO ELIZARAN ZENTROAN EGUNEKO ZENTRO, LAGUNTZADUN ETXEBIZITZA ETA  
TUTORETZAPEKO APARTAMENTU ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ARRAZOITUTAKO  
TXOSTENA**

**AURREKARIAK:**

Diputatuen Kontseiluak 2007ko martxoaren 20ean onartu zuen Donostiako **Elizaran** gizarte baliabideen zentroa erabili eta kudeatzeko kontratu administratibo berezia egiteko espedientea.

Kontratazio espedientea burutu ondoren, 2007ko ekainaren 28ko 526/07 Foru Aginduaren bitartez esleitu zen kontratua Jose Matia Calvo Fundazioari.

Kontratua 2007ko abuztuaren 6ean sinatu zen, eta hasierako indarraldia 2010eko abenduaren 31 artekoa zen. Era berean, ondoren luzatzeko aukera ere aurreikusten zen, gehienez urte betekoak izanik luzapenak eta guztira gehienez 10 urteko iraupena lortu arte, kontratuaren hasierako iraupena kontuan izanda. Beraz, kontratuaren gehieneko indarraldia 2017ko abuztuaren 5ean amaitu zen.

Zentro horren baitan honako zerbitzuak eskaintzen dira:

1. Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako eguneko zentroa, 20 plaza.
2. Desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza laguntzadunak, 12 plaza.
3. Adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuak, 10 plaza.

Kontuan izan behar da 3. Zerbitzua (apartamentuak) udal eskumenekoak direla Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera, eta hori dela eta, dagokion udalak (Donostiak kasu honetan) kudeaketa emakida bat egin beharko lioke Aldundiari zerbitzu hori bertan eman ahal izateko. Aurretik zegoen kudeaketa emakidaren indarraldia amaiturik zegoenez, berri bat egiteko prozesua abiarazi zen, baina bi aldeen arteko desadostasunak medio, prozesua atzeratu da, lizitazio berriari hasiera emateko aukerarik eman gabe.

Azken asteotan gaia desblokeatu eta kudeaketa emakida berri bat hitzartzeko bidea ireki denez, lizitazio berria abiarazteko momentua iritsi da.

Esan beharrik ez dago Elizaranen ematen diren zerbitzuek beharrezkoak izaten jarraitzen dutela.

Bestalde, 3 zerbitzuak kontratu berean eta sorta bakarrean ematea beharrezkotzar jotzen da honako arrazoiengatik:

1.- Kontratu honetan langileen subrogazio betebeharra aplikatu behar da, eta momentu honetan dauden langileek bere lana 3 zerbitzuen artean banatzen dute, beraz ez daude zerbitzu ezberdinei esleituta.

2.- Zentroaren trinkotasuna: eraikin bakarra, Fermin Calbeton kalean, oso bertikala (sotoa, behe solairua, beste 4 solairu eta goiko terraza). Elementu komunak (ataria, igogailua, terraza...), mantentzearen eta hornidura gastuen banaketa oso konplexua izango litzateke. Gatazkak etengabekoak izango lirateke (Txara 1 horren lekuko izaten ari da, eta Departamentuaren bitartekaritzari esker egoera ez da bere onetik irteten).

3.- Zerbitzu bakoitzak, lote bat izanik, oso dimentsio txikia izango luke, eta ondorioz: arrisku maila areagotu (jardueren artean balizko konpentsaziorik ez legoke), kudeaketa zurrunagoa izango litzateke (langileak zerbitzu batetik bestera mugitzeko aukerarik ez —horrexegatik beren jarduera 3 zerbitzuen artean banatzen dute—, kudeaketa egitura bikoiztu edo hirukoiztu..).



Bestalde, kontratu honetako hirugarren zerbitzua (tutoretzapeko apartamentuak), udal eskumenekoa izanik, Donostiako Udalarekin sinatutako kudeaketa emakida hitzarmen bati lotuta dago. Hitzarmen horren indarraldia 2021eko abenduaren 31ra artekoa da.

**PROPOSAMENA:**

Horregatik, **eskatzen dugu abian jartzea** Donostiako Elizaran zentroan eguneko zentro, laguntzadun etxebizitza eta tutoretzapeko apartamentu zerbitzuak kontratatzeko espedientea, honako xehetasunekin:

**A. Sorta kopurua:**

Sorta bakarra.

**B. Esleipen irizpideak:**

**1.- BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK: 40 puntu**

**1.1.-Lan programa:** 30 puntu arte

<b><u>Lan programa:</u></b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Programak eta zerbitzuak.</li><li>• Informazio sistemak.</li><li>• Antolakuntza eta kudeaketa sistemak.</li><li>• Proiektuaren ikuspegi orokorra</li></ul>	<b><u>30 puntu arte</u></b> 11 puntu arte 9 puntu arte 6 puntu arte 4 puntu arte
--	--

Zerbitzu bakoitza bere aldetik baloratuko denez, honako ponderazioa emango zaie<sup>1</sup>:

1. Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako eguneko zentroa: %40
2. Desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza laguntzadunak: %50
3. Adinekoentzako tutoretzapeko apartamentua: %10

**1.2.- Zentroaren mantentze plana:** 10 puntu arte

<b><u>Zentroaren mantentze plana</u></b> Mantentze planaren garapen maila <ul style="list-style-type: none"><li>• Aurreikusi ez diren egoerei aurre egiteko modua</li></ul> Aurreikusitako talde profesionala <ul style="list-style-type: none"><li>• Konprometitutako ordu kopurua.</li></ul>	<b><u>10 puntu arte:</u></b> 5 puntu arte 5 puntu arte
---	--

**2.- FORMULA BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK: 60 puntu**

**2.1.- Prezioa:** 35 puntu arte

<sup>1</sup> Ponderazioa hauek Memoria Ekonomikoaren urteko aurrekontuaren arabera kalkulatu dira, zeinaren arabera:

1.- Eguneko zentroa:	217.767,10€ (%37,4)
2.- Desgaitasuna dutenentzako etxebizitak:	307.179,01€ (%52,8)
3.- <u>Adinekoentzako apartamentuak:</u>	<u>57.017,59€ (%9,8)</u>
GUZTIRA:	581.963,70€ (% 100)



**2.2.- Zuzendaritzaren esperientzia:** 10 puntu arte

Esperientzia buru gaixotasuna duten pertsonak artatzeko zentro edo zerbitzuen zuzendaritza lanetan: 0,083 puntu, 30 eguneko.	<b>10 puntu arte.</b>
--	-----------------------

**2.3.- Desgaitasunen bat duten pertsonen, baztertuen eta talde zaurgarrietako kideen gizarteratzea sustatzea:** 5 puntu arte.

<p>Zerbitzuak azpikontratatzea, gizarte ekimeneko enplegu zentro berezien bitartez eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen bitartez.</p> <p>5 puntu arteko balorazioa emango zaie kontratu esleipenaren prezioaren portzentaje bat gizarteratzeko enpresekin eta/edo gizarte ekimeneko enplegu zentro bereziekin azpikontratatzeko konpromisoa hartzen duten entitate lizitatuak.</p> <p>Hala eginez gero, azpikontratatuak diren enpresak hauek izango dira eskusiboki:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Gizarte ekimeneko enplegu zentro bereziak. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, sektore publikoko kontratuak, 14. xedapen gehigarrian adierazitako deskribapenaren eta baldintzen arabera, gizarte ekimeneko enplegu zentro bereziek behar bezala izena emanda eta erregistratuta egon beharko dute, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duenak, ezarritako erregulazioaren arabera.</li><li>• Gizarteratzeko enpresek behar bezala izena emanda eta erregistratuta egon beharko dute, 44/2007 Legeak, abenduaren 13koak, gizarteratzeko enpresak arautzekoak, xedatutakoaren arabera, edo, bestela, dagokion araudi autonomikoaren arabera.</li></ul> <p>Puntuazioa honela emango da:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Eskala bat ezartzen da, zeinaren arabera puntuak emango baitira kontratu esleipenaren prezioaren portzentaje bat gizarteratzeko enpresekin eta gizarte ekimeneko enplegu zentro bereziekin azpikontratatzeko konpromisoa hartzeagatik: puntu 1 % 2 bakoitzeko.</li><li>• Gehienez ere 5 puntu emango dira kontratu esleipenaren prezioaren % 10 gutxienez gizarteratzeko enpresekin eta gizarte ekimeneko enplegu zentro bereziekin azpikontratatzeko konpromisoagatik.</li><li>• Puntuazio proportzionala emango zaie tarteko eskaintzei.</li></ul>	<b>5 puntu arte.</b>
---	----------------------

**2.4. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna:** 5 puntu arte.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko entitate laguntzailearen ziurtagiria edo bereizgarria 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, edo pareko izaera ofiziala duen besteren bat.	<b>5 puntu arte.</b>
--	----------------------

**2.5.- Hizkuntza berdintasuna:** 5 puntu arte.

Kontratua gauzatuko duen langile taldeari euskaraz lan egiteko konpetentziak lortzeko prestakuntza diseinatze eta emateko konpromisoa, urtean gutxienez 100 orduz.	<b>5 puntu arte.</b>
--	----------------------



### **C. Azpikontratazioa:**

Zentroan eman beharreko zerbitzuak Ezaugarri Teknikoen agiriaren II, IV eta V. eranskinean zehazten dira, eta horietatik kritikoak honakoak dira, beraz azpikontrataezinak:

1.- Adinekoen eguneko zentroa:

- Oinarrizko arreta pertsonaleko eta eguneroko bizimodua berregokitzeko zerbitzuak.

2.- Desagaitasuna dutenentzako etxebizitza laguntzaduna:

- Zentroan harrera egiteko zerbitzuak.
- Pertsonari eman beharreko laguntzen plangintza.
- Laguntza zerbitzuak etxeko bizitza testuinguruan.
- Laguntza zerbitzuak giza garapenean.
- Laguntza zerbitzuak bizitza komunitario, sozial eta zibikoan.

3.- Adinekoentzako apartamentuak:

- Gizarte zerbitzuen perstazio tekniko orokorrak.
- Banakako planei lotutako prestazio teknikoak: etxerako laguntza eta arreta pertsonala.

Guztiak zerbitzuaren-muina, eta xede nagusia osatzen dute, beraz esleipendunak zuzenean eman beharrekoak dira, azpikontrataziorik gabe.

### **D. Iraupena:**

Iraupenari dagokionez, kontuan izanda Donostiako Udalarekin Kudeaketa Emakidarako Hitzarmenarekin dagoen lotura, **2021eko abenduaren 31ra artekoa** izatea proposatzen da.

### **E. Bestelako xehetasun batzuk:**

Ez dago.

Donostian 2018ko maiatzaren 23an

Ander Zapiain Usandizaga  
Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako zerbitzuburua.